

6. Bezeroarekiko harremanak

Guretzat garrantzitsua izango da gure zerbitzuak ekoizten dituzten enpresen eta aldundiekin izango dugun harremana zaintzea eta horregatik harreman pertsonala eskainiko diegu, hau da, bezero batek gurekin kontaktuan jarri nahi badu guri deituko digu eta zuzenean gurekin harremanetan egongo dira. Horrela bezeroak baloratuagoak sentituko dira eta zerbait pertsonalagoa dela sentituko dute. Gainera gure bulegotara etortzen badira batzarretan hitz egingo diegu eta horrela laguntza pertsonala emango diegu.

Beste aldetik, gure zerbitzua erabiliko duten gizabanakoek, aplikazioan uzti dezakete iritziak eta gure ordenagailuak erantzungo die, hau da, eraintzungailu automatikoa izango dugu galdera zehatz eta galdetuenak erantzuteko.